

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/041

Izenburua: HIRIGINTZAKO PROBINTZIA BATZORDEA

Datak: 1954-1989

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 579 instalazio unitate

Sortzailea: HIRIGINTZAKO PROBINTZIA BATZORDEA

Erakundearen historia:

1956ko maiatzaren 12ko Legeak —lurzoruaren eta hiri antolamenduaren araubidea ezartzen zuena— Hitzaurrearen VII. atalean ezarri zuen Hiri Antolamenduko Batzorde Nagusiak —legea indarrean sartu aitzinetik sortuak— Hirigintzako Probintzia Batzorde bihurtu behar zirela; batzorde horien eginkizunak lege horren 201. artikuluan jasotzen ziren. 1957ko urriaren 3ko Dekretuak xedatu zuen azken horiek Departamentuko Probintzia Ordezkaritzetan sartzea, eta nola osatu adierazi zuen.

1962ko martxoaren 14ko Aginduaren bidez, Hirigintzako Batzorde Probintzialen eraketa arautu zen eta eginkizun hauek ezarri zitzaizkien: "plangintza orientatzea, sustatzea eta ikuskatzea". 1967ko azaroaren 27ko 2764/1967 Dekretuaren bidez —gastu publikoa murrizteko Estatuko Administrazio Zibila antolatzeari buruzkoa—, Arkitektura, Etxebizitza eta Hirigintza Kontseilu Probintzialen eskumenak bereganatu zituzten. Ekainaren 2ko 1374/1977 Errege Dekretuaren bidez —hirigintza planen eraketa eta egikaritza arintzeari buruzkoa—, xedatu zen Lurralde Plan Zuzentzaile bat edo Plan Berezi bat indarrean sartzeko zenetik aitzina Etxebizitza Ministerioak erabakiko zuela Hirigintzako Probintzia Batzordeei honako hauei buruzko eskumenak eskuordetzea: Plangintzako Plan Orokorrak, Arau Subsidiarioak eta Osagarriak, bai eta haiek gauzatzeko behar ziren plangintza tresnak ere.

Etxebizitza Ministerioak Hirigintzako Probintzia Batzordeen esku utzi zuen (1977ko ekainaren 20ko Agindua) honako hauek behin betiko onartzeko ahalmena: antolamenduko udal plan orokorrak garatzeko idazten ziren antolamenduko plan partzialak, bai eta maila bereko plangintzako arau osagarriak eta subsidiarioak ere, probintziako hiriburuei edo 50.000 biztanletik goitiko udalerriei zegozkionak. Bi urteko epea ezarri zen eskuordetze hori gauzatzeko. Irailaren 1eko 2682/1978 Errege Dekretuaren bidez, Hirigintzako Probintzia Batzordeen osaera arautu zen. Dekretuan xedatzen ziren batzorde horien ahalmenak informazio, kudeaketa, ebazpen eta fiskalizazio izaerakoak izanen zirela. Halaber, xedatzen zen honako hau lortzera bideratu behar zirela: hiri garapenerako beharrezkoak ziren obren plangintza eta egikaritzea orientatzera, sustatzera eta ikuskatzera.

Ekainaren 19ko 1117/1985 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioak lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan zituen eginkizunak eta zerbitzuak.

Funtsaren antolamendua:

041.01 GOBERNUA

- 041.01.01 Batzordearen aktak
- 041.01.02 Bilkuren espedienteak
- 041.01.03 Saioen deialdia

041.02 ADMINISTRAZIOA

- 041.02.01 Korrespondentzia

041.03 ZERBITZUAK

- 041.03.01 Hirigintzako plan eta proiektuen txostenak eta onarpenak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratu nahi izanez gero Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.